

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

22/2020 Mozioa, maiatzaren 27koa, zerbitzu publikoak mantentzeko eta sendotzeko neurri fiskalei buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko maiatzaren 27an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

22/2020 Mozioa, maiatzaren 27koa, zerbitzu publikoak mantentzeko eta sendotzeko neurri fiskalei buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek bere konpromisoa adierazten dute 2020. urtean azken erreforma fiskalaren ebaluazioari ekiteko eta, hala badagokio, zerga-progresibitate maila handiagoa lortzeko behar diren neurri fiskalak hartzeko, zerbitzu publikoak mantendu eta sendotzeko baliabideak eskuratzeko bidean.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote bultzatu eta zehaztu ditzala, harmonizazio fiskala eta nahikotasun finantzarioko irizpideekin, zerbitzu publikoak, pertsonentzako arreta eta jarduera ekonomikoaren berreskuratzea bermatu eta sendotzera bideratuta dauden arlo fiskaleko jarduketak.

3. Arabako Batzar Nagusiek berretsi egiten dute iruzur fiskalaren aurkako borrokarekin duten konpromisoa eta Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala iruzur hori deuseztatzeko jarduketa sendotzen, bai eta berrikusi eta sendotu ditzala elusio fiskalaren aurkako neurriak eta iruzur-jokabide guztien aurka egin dezala. Halaber, dei egiten dute Europak batera jardun dezan arlo honetan eta gogortu dadila elusio fiskala helburu duten figuren tratamendua.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 27a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA